


Hasta aquí lo que sería la descripción del trabajo que se presenta. Imagino que a lo largo de ella se han ido percibiendo algunos de los aspectos que, desde mi punto de vista, mayor interés pueden concitar. No obstante, me gustaría insistir en alguno de ellos. Es probable que la propiedad nobiliar no vertebrara los sistemas de producción de la Navarra moderna, pero no por ello era desdeñable. Habían sido siglos en los que, por diferentes vías, la nobleza vio engrosar sus patrimonios, por lo que las medidas liberales, y en concreto la ley desvinculadora de 1836, escribían un teórico epitafio no sólo para un determinado sistema productivo, sino, también, para una manera determinada de entender las relaciones sociales. Es recomendable que nos detengamos en la minuciosidad de los árboles genealógicos, ya que nos permiten adivinar las diferentes políticas matrimoniales que garantizaban, como decíamos, la pervivencia de los factores de reproducción social y económica. Y, si no, que se lo pregunten al Duque de Granada, quien, después de vender parte de su patrimonio al Conde de Zaldívar, casaría a un hijo con la hija de éste, recuperando esos bienes para su familia.

Resultan igualmente sugerentes los cuadros que incorpora. En ellos va apareciendo información precisa sobre el patrimonio de los títulos de nobleza y su evolución a lo largo de las diferentes generaciones. Fincas clasificadas según fueran cotos redondos o minifundios, pero, de igual forma, según el tipo de aprovechamiento, de pastos o agrícola, en secano o regadío, y que les proporcionaban un determinado nivel de rentas, del cual también se hace eco. Aunque de forma marginal, en ocasiones, encontraremos datos sobre los sistemas de explotación de esos bienes, bien por administración directa, bien mediante arrendamientos a colonos. Relaciones económicas entre campesinos y propietarios que es probable generaran conflictos entre ellos y que hubiera sido interesante incorporar, aunque, obviamente, no parece ser el objeto del trabajo. De igual manera, resultaría sumamente enriquecedor integrar el análisis de la evolución de los patrimonios nobiliarios en la estructura de la propiedad general de los municipios en los que se enclavaban, para darse cuenta de la incidencia real que pudieron llegar a tener.

En fin, el libro de Virto merece la pena ser, además de leído, utilizado, tanto por los datos que aporta, como por las puertas que va abriendo, para ir completando el análisis económico de la Navarra contemporánea.

José Miguel Gastón Aguas



ZUAZO, Koldo

Euskalkiak. Herriaren Lekukoak

Donosita: Elkarlanean, 2003. – 233 or. : map. ; 16 cm. – ISBN 84-9783-061-X

Askotxo dira azken urteotan egiten ari diren lanak euskal dialektologia arloan. Hauetako asko lan deskriptiboak dira, taxonomia eta sailkapena erakusten dutenak. Beste batzuk aurreko lan guztien ekarpenak kontuan hartu eta ikuspegi orokorra eskaintzen digute. Talde honetan koka dezakegu Koldo Zuazoren azken lana. Koldo Zuazo, Euskal Filologian katedraduna, aspaldidanik dabil Euskal Herriko osoko hizkerak aztertzen, eta, jakina denez, dialektologia alorreko liburu eta artikulua ugariren egi-lea da. Lan hau, honenbestez, urteetako lanaren emaitza dela iruditzen zaigu, aurretiko lan horien uzta modu errazean emana.

Xede honetarako kontuan hartu ditu orain arteko dialektologia arloan egin diren ekarpen guztiak, baita berrrienak ere, nahiz bibliografian ez diren denak aipatzen. Izan ere liburu honen helburua zabalkunde lana egitea da, egileak berak dioenez, “ez adituei eta jakintsuei begira egindakoa”. Helburu hori dela eta, saihestu ditu teknizismoak eta hizkuntzako hots bereziak adierazteko zeinu fonetikoak.

Lanaren egiturari dagokionez, bi atal nagusitan banatu du, lehenengoan euskalkietako gertakariak hartu ditu aztergai eta bigarrean euskalkien mugak gainditu eta eremu zabalagoetan betetzen direnak izan dira azterketa helburuak. Erabat berritzailea da atal hau, orain arteko jardunetan inoiz erakutsi ez dena.

Esan bezala, alde batetik, hizkera guztien deskribapen xehea daukagu, baita euskalkien mugak gainditzen dituzten ezaugarrien bilduma ere. Hau da ekarpen garrantzitsuenetako bat, orain arte inoiz ez baita aztertu euskalkien gaineko eremu horren hedadura eta hedadura horren arrazoiak. Beste ekarpen garrantzitsua da mapak eta irudiak, anitz dira hauek. Euskalki bakoitzeko mapa bat tartekatzen da Zuazok proposaturiko euskalkien sailkapen eta azpieuskalkiekin. Honetaz gain, bigarren atalean euskalkiz gaineko eremuak erakusten ditu mapetan.

Lan guztian zehar, euskalki bakoitzaren barruan, dialektoen bilakabidean eragina izan duen arlo humanistikoa edo historikoa hartzen du kontuan. Aztertzen ditu zein eragina izan duten merkatuek, lanarengatik izandako harremanek, erromeriek, feriek eta gainerakoek hizkuntzaren irudikapenean. Alegia, mendetan zehar iraun duen bizi-modua. Azkenean, literaturak euskalkiak irudikatzean zein eragina izan duen izan da azterketa lanaren helburu, azken finean zeintzuk izan diren indar bateratzaileak eta zeintzuk banatzaileak aztertu dira, baina euskalkien aurkezpen zehatza eta sakona izan gabe, hori ez delako bere helburua izan.

Azken batean hizkuntza ahalik eta osoen erakustea da xedea. Hauek izan dira ezaugarriak aukeratzeko orduan, kontuan izan dituen irizpideak:

- a) Hedadura
- b) Maiztasuna
- c) Emankortasuna

Honenbestez, esan dezakegu baztertu dituela eremu txikietan erabiltzen diren ezaugarriak, alegia, txikieriak eta bitxikieriak izan daitezkeenak.

Hauek dira aztertu dituen euskalkiak: mendebaldeko euskara, Arabako euskara, euskara nafarra, euskara nafar-lapurtera, ekialdeko nafarra eta Zuberokoa.

Euskalkiez gaineko eremuetan hauek hartu ditu kontuan: Euskal Herri osoko zenbait ezaugarri, Euskal Herriko erdiguneko ezaugarriak euskara nafarraren eta nafar-lapurteraren ezaugarriak, Mendebala eta erdialdea vs ipar Euskal herria / euskara

nafarra, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ekialdeko ezaugarriak, Ekialdeko ezaugarriak, Ipar Euskal Herriko ezaugarriak eta azkenik, Hego Euskal Herriko ezaugarriak.

Laburbilduz, liburu interesgarri, zehatz eta zientifiko baten aurrean gaude, aitzineko beste batzuen fruitu dena. Monografia honen gibelean hemen azalean agertzen ez diren hainbat artikulua eta ikerketa sakon eta teknikoagoetan daude era inplizituan, baina liburu honetan modu atsegín eta laburbilduan emanak. Bestalde, ez du ikuspegi sinkronikoa soilik lantzen, euskalkien nolakotasunean eragin eta bilakabide lektal eta diakronikoak ere kontuan hartzen ditu eta hori arrunt interesgarria da, ez baita taxonomia eta ezaugarri bilduma ematera soilik mugatzen.

Azkenik, erabat interesgarriak dira agertzen diren mapak, izan ere batzuk berri berriak dira eta lehen aldia da euskalki bakoitzeko aldaerak erakusten dituen mapak ikusten duguna. Gainera, euskalki bakoitzean trantsizio hizkerak ere agertzen dira islaturik. Baina lan hau ez da Isoglosa zerrenda bat edo ezaugarrien pilaketa bat ematera mugatzen, monografia hau erabat atsegina egiten zaigu euskalkien gaian aditua ez denarentzat, bai eta eremu honetan lan egiten ari garenontzat ere. Izan ere, ikuspegi berria ematen dio euskalkien banaketari eta hori modu errazean eginik dagoenez oso eskergarria da.

Orreaga Ibarra